



Bai Euskarari Ziurtagiriak berritzeko garaia Leitzan

ERAGILEAK ▶ Areso eta Leitzako
56 enpresa ttiki, denda eta
zerbitzuz dute aukera

KONTSEILUA ▶ Egun hauetan ari
da horretan Kontseiluko ordezkaria;
agirien banaketa, datorren hilean ▶ 7



Idazten abil direnak saritu ditu Uxola lehiaketak

TOLOSA ▶ Urtero bezala, atzo banatu zituzten Uxola Literatur Lehiaketako sariak. Kasu honetan XIX. edizioa bete du Estanislao Urruzola Uxola idazle zenaren omenezko lehiaketak eta eskualdeko ikasle askok hartu dute parte bere olerki eta ipuinekin. Epai-mahai lanetan Agustin Amiano, Juan Kruz Igerabide eta Karlos Linazasoro aritu dira eta beraiek aukeratu dituzte idazlan onenak, adinaren arabera hiru mailatan banatuta. Guztira 20 sari eman dituzte, aurretik bi akzesit izan baitira. Alegiako, Anoetako,

Ibarrako eta Tolosako ikastetxe ezberdinetako ikasleek jaso zituzten atzo Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeak eta Kutxa Gizarte Ekintzak eskainitako sariak. Kultur Etxean egin zen sari banaketa ekitaldia eta ondoren Iparraldeko Koldo Amestoy eta Pantxix Bidarte aktoreek *Kontu kontari* ikuskizuna eskaini zuten. Argazkian, aurtengo Uxola Literatur Lehiaketako sariak eskuratu dituzten idazle gaztetxo batzuk Onintza Lasa Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza zinegotziarekin batera. IRATXE ETXEBESTE ▶ 2

TOLOSA ▶



LEIRE MONTES

**Igarondok
ere
arraunean
egin nahi du**

Batela eta San Joan
jaietako kanpaina
prest du elkarteak ▶ 3

VILLABONA- AIZTONDO ▶

**Bertsoak
idazteagatik
sartu
dituzte**

Mujika, Iguaran eta
Ordozgoiti izan dira
sartuta ▶ 4

IBARRA ▶

**Kubako
iraultzari
buruzko
hitzaldia**

Solarrek emango du
Gaztetxean ▶ 6

LITERATURA ▶

Idazten abil diren horiek

Eskualdeko hogeitazteko jaso zituzten atzo XIX. Uxola Literatur Lehiaketako sariak Kultur Etxean

IRATXE ETXEBESTE

Hogeigarrena betetzeko bidean da honezkerok. Hemeretzi urte Tolosako seme Estanislao Urruzola Vitoria Uxola-ri omen egiteko-edo haren izena duen literatur lehiaketa abian jarri zutela. Idazle eta olerkari zena zendu zen urte berean ekin zioten udal ordezkariak antolaketan lanari. 1986an. Eta ordutik hona ez du hutsik egin. Sekula ez. Berdin hizlauan, berdin poesian, asko eta asko dira arteotan lehiaketako sariren bat irabazi duten gazteak. Are gehiago lehiaketara idazlanak edo olerkiak bidali dituztenak. Hala, literaturara gerturatzeko bidea izan da askorentzat Uxola sarietan parte hartzea; lehen hurbiltzea, nolabait esatearren. Udal arduradunentzat eta eskualdeko irakasleentzat, berri, parte-hartzaileek sormen lanei ausardiarekin erreparatzeko eta gaztetxo horien irakurzaletasuna bultzatzeko modu bat. Egokia. Berezia.

Bada 20 izan dira XIX. Uxola sarien irabazleak. Hizlauan eta olerkian, izan ere, maila bako-



Koldo Amestoy eta Pantxix Bidart musikariek ikuskizuna eskaini zuten atzo Kultur Etxean. I. ETXEBESTE

tzeko ohiko hiru irabazleez gain bi gehiago nabarmendu dituzte Agustin Amiano, Juan Kruz Igerabide eta Karlos Linazasoro epaimahaiko kideek aurten, hizlauan 1. mailan eta olerkian 2. mailan akzesitu bana izendatuz. Alegiako, Anoetako,

Ibarrako eta Tolosako ikastetxe ezberdinetako ikasleek jaso dituzte Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeko eta Kutxako Gizarte Ekintzako arduradunek eskainitako sariak; pozarren jaso ere, atzo arratsaldean Kultur Etxeko ohol-tza

gainera igo ziren guztiek seinala baituzten zinez gustura zirela. Nola ez.

Bestalde, eta ekimen hori urtez urte heltzen ari delako, sariak banatzeko ekitaldia bera ere gorpuzten ari da pixkanaka. Iazkoan Tolosako Laskorain

ikasleek eskainitako poesia errezitaldiak boro-bildu zuten Leidorren, eta atzokoan Kontu kantari ikuskizunarekin egin zuten agerraldia Kultur Etxean Koldo Amestoy eta Pantxix Bidartek.

Iparraldetik, Lauhaizetara deitzen dioten plazatik Tolosara etorri, eta kantuan egin zuten biek ikus-entzuleen gozamenarako. «Lau haizeen enparantzatik iragaiten dira guztiak, denak gurutzatzen, zurrumuru ekarleak, lelo eta kondaira hedatzaileak... Bidaiariak ere, urrungo herrietatik etorriak, beraien kantu eta kontakizunekin: gizaki, otso, deabru eta beste hainbat txori bitxiak istorioak, balada eta amodio kantak... Lauhaizetara plaza pasagune, topagune, trukaketa gune dugu; hortxe, zazpizarren izar multzoa amets batez sortu duen artzaiaren ondoan jar-ten dira musikari eta kondalariak. Badirudi, edonondik etorri eta edonora doazen istorioek zein kantuek hemendik pasatu behar dutela», zioen Amestoyk. Tolosaldeko, behintzat, pasatu ziren atzo. Eta nola.

SARITUAK ▶

MARIA MURUA

SAMANIEGO HERRI IKASTETXEA



Maila. Hizlauan, 1. maila.
Lana. Leoneten kondaira.
Saria. Lehena.

IÑAKI ARTOLA

ALEGIAKO SAN JUAN IKASTETXEA



Maila. Olerkia, 1. maila.
Idazlana. Ametsetan.
Saria. Lehena.

IRATI GARIKANO

ANOETAKO HERRI IKASTOLA



Maila. Hizlauan, 2. maila.
Lana. Gutun misteriozua.
Saria. Bigarrena.

TXOAN ORMAZABAL

LASKORAIN IKASTOLA



Maila. Olerkia, 2. maila.
Lana. Lore bakartia.
Saria. Hirugarrena.

ENERITZ IRAOLA

ANOETAKO HERRI IKASTOLA



Maila. Hizlauan, 3. maila.
Lana. Iraganaren gazi-gozaok.
Saria. Hirugarrena.

HARITZ ALDABAL

SAMANIEGO HERRI IKASTETXEA



Maila. Hizlauan, 1. maila.
Lana. Sabaian itsatsirik.
Saria. Bigarrena.

SIMON LOPEZ

SAMANIEGO HERRI IKASTETXEA



Maila. Olerkia, 1. maila.
Idazlana. Aita ahaztu.
Saria. Bigarrena.

AINARA OTAMENDI

IBARRAKO UZTURPE IKASTOLA



Maila. Hizlauan, 2. maila.
Lana. Ilundu da eguna, baita nire barrua ere.
Saria. Hirugarrena.

LEIRE LARREA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila. Olerkia, 2. maila.
Lana. Malkoz malko.
Saria. Akzesita.

IÑAKI ETXEBERRIA

HIRUKIDE-ESKOLAPIOAK



Maila. Olerkia, 3. maila.
Lana. Gauean zurekin ametsetan.
Saria. Lehena.

ANE GURRUTXAGA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila. Hizlauan, 1. maila.
Lana. Istoriorik politena.
Saria. Hirugarrena.

BEÑAT AZALDEGI

LASKORAIN IKASTOLA



Maila. Olerkia, 1. maila.
Lana. Zuhaitz txikia.
Saria. Hirugarrena.

MAIALEN RODRIGUEZ

LASKORAIN IKASTOLA



Maila. Olerkia, 2. maila.
Idazlana. Ni banintz.
Saria. Lehena.

ANDER MALBADI

HIRUKIDE-ESKOLAPIOAK



Maila. Hizlauan, 3. maila.
Lana. Zumaiaiko itsasargia.
Saria. Lehena.

LEIRE AGIRREZABALA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila. Olerkia, 3. maila.
Lana. Izarrak desagertzearekin bat.
Saria. Bigarrena.

AINHOA ELOLA

SAMANIEGO HERRI IKASTETXEA



Maila. Hizlauan, 1. maila.
Lana. Xaxa printzesa.
Saria. Akzesita.

MATTIN DE LA SOTILLA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila. Hizlauan, 2. maila.
Lana. William Wallace.
Saria. Lehena.

IORITZ GALARRAGA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila. Olerkia, 2. maila.
Aurkeztutako idazlana. Zu.
Saria. Bigarrena.

IZARO AZURMENDI

LASKORAIN IKASTOLA



Maila. Hizlauan, 3. maila.
Lana. Iragana, oraina eta geroa.
Saria. Bigarrena.

ANDER MUÑAGORRI

IBARRAKO UZTURPE IKASTOLA



Maila. Olerkia, 3. maila.
Idazlana. Ilun dago.
Saria. Hirugarrena.

BILERA ▶

Zine arloko proposamenak biltzeko bilera

«Gure Udalak gaur arte zine programazioaz azaldu duen ardurara eskasa ikusita, eta jarrera honen aldaketa bultzatzeko asmoz», zinezale talde batek Udalarai aurkezteko proposamenak jaso nahi ditu herritarrengandik. Horretarako, bilerara deitu du: interesa duenak gaur, 20:00-etan, Kultur Etxera agertu besterik ez du.

ERLIJIOA ▶

Batzar irekia, Santa Mariako parroki etxean

Bihar, 20:00etan, batzar irekiera deitu dute Santa Mariakoek, parroki etxean. «Pastoral urteari azkena emateko, azterketa-ebaluaketa egiteko, eta aurrera begirako asmoak lantzeko» izango da, besteak beste, bilera hori. Bestalde, igandean, goizeko hamarretan, Santa Maria parrokiaren ospatuko den mezara «herritar guztiak» gonbidatu dituzte.

HEZKUNTZA ▶

Begirale ikastaroa egiteko aukera Hirukiden

Iturralde Eskolak (Hirukide ikastetxea) begirale izateko ikastaroa eskainiko du beste behin, eta izen-emate epea zabaldu berri du. Izena eman nahi duenak edo informazio gehiago jaso, 943 67 03 11 telefono zenbakira dei dezake —Gartxot Agirre arduradunataz galdetu behar da—. Hilaren 23a izango da azken eguna izena emateko.

ERAKUSKETA ▶

Dicky Rekalderen lanak, bihartik Aranburun

Dicky Rekalderen *Ipuintxo moderno* bat pintura erakusketa zabalduko dute bihar, 19:30ean, Aranburu Jauregian. Artistaren lanak uztailaren 9a arte izango dira ikusgai bertan. Hain zuzen ere, asteartetik larunbatera egongo da zabalik aretoa —astelehena eta jaiegunetan izan ezik—, 17:30etik 20:30era.

EKONOMIA ▶



Comercial Bulegoak S.L., 25 urte herrian

L. Montes ▶ Comercial Bulegoak S.L. enpresak 25 urte bete ditu herrian. 1980an sortu zuten, eta sistema eta ekipo ofimatikoen salmentaz, alokariuz eta zerbitzu teknikoaz arduratzen da. Urteurrenaren berri emateko, prentsa agerraldia eta bisita gidatua antolatu zuten enpresakoek.

Miguel Angel Rincon eta Miguel Angel Amigo bazkide fundatzaileek, Jose Antonio Cutillas Nashutec-eko zuzendariak, Olatz Peon alkateordeak eta Josemi Gomez Elosegri Enplegu zinegotziak jardun zuten. Irudian, Peon eta Gomez Elosegri, Rinconen azalpenei adi. LEIRE MONTES

MERKATARITZA ▶

LEIRE MONTES

Batean eta batera... Horixe da Igarondo Merkatarien Elkartearen asmoa sanjoanei begira. Jaietarako kanpaina prest dute, eta atzo aurkeztu zuten aurten go berrikuntza: lagunduko duten batela.

Trianguloan egin zien harreara batel berriak ingurutik pasatu ziren herritarrei. Arraunean ariko diren gaztetxoak ontzia garbitu, txukun-txukun jarri, arraunak hartu eta argazkia ateratzeko prest ziren. Gero, batela hartu eta Oriara jaitsi ziren, ilusioz beterik.

Olatz Peon alkateordearen esanetan, «batel estropadak berreskuratzeke herriko eragile asko ari dira lanean, eta Igarondok ere bat egin nahi du horrekin». Josemi Gomez Elosegri Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu zinegotziak, bestalde, «Tolosako merkataritzaren suspertzea» azpimarratu zuen. «Bi helburu ditugu. Batetik, herriko gune bat berreskuratzea: ibaia. Bestetik, herriko tradizio bat berreskuratzea: batel estropadak. Denok batera, eta norabide bereetik. Merkataritza bizia delako».

Anate Iturralde, Igarondoren izenean, sanjoanetako kanpaina azaldu zuen. Hiru puntutan oinarritzen da: «Garbonetan egiten dugun moduan, orain ere kaleak eta den-den kanpoaldeak apainduko ditugu Igarondoko merkatariorik. Gainera, estropadetako batel bat lagunduko dugu. Herriak duen tradizio polit hori berreskuratzeke lanarekin bat egin nahi genuen».

Igarondok ere arraunean egin nahi du

Igarondo elkarteak batela aurkeztu du; sanjoanetako kanpaina prest du



Batelaren aurkezpen ondoren, arraunean aritu ziren gazteak. L. MONTES

Azkenik, 600 euroko erosketatik zozketatuko du Igarondok, hilaren 23an: «Hilaren 22a arte, elkarteko kide garenok boletoak banatuko dizkie-

gu bezeroei, beren datuak jar ditzaten; zozketan sartuko dira hala. Irabazleak Igarondoko edozein establezimendutan gastatu ahal izango du dirua».

TXIRRINDULARITZA ▶

Tolosan izango du helmuga gaur Euskal Bizikletak

Eskualdeko herri askotatik pasatuko dira txirrindulariak, 16:30etik aurrera

L. MONTES

Tolosan izango du gaur helmuga Euskal Bizikletak, eta eskualdeko beste zenbait herri ere zeharkatuko ditu. 16:30ak aldera, tropela Larraitzera iristea espero da. Abaltzisketa-Amezketeta-Alto-Tolosa-Anoeta-Irura-Villabona-Alkiza-Anoeta-Hernalde-Tolosa bidea osatuko dute txirrindulariek Tolosaldean. Helmugara 17:40ak aldera iritsiko direla aurreikusi dute. Lasterketa garaian, Tolosako autobusak, Rondillatik pasatu ordez, Santa Klara-Kondeko aldapa-Amaroz ibilbidea egingo du.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
 - ▶ Renfe Tolosa: 652889
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarano autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Uda Jolasean-iburuzko zenbait azalpen

Azken egun hauetan, Uda Jolasean dela eta, kexa batzuk jaso ditugu, telefonoz, ahoz eta baita idatziz ere. Hau dela eta ondorengo azalpen hauek adierazi nahi ditut:

-Opor garaian haurrengan euskara sustatzea da Udan Jolasean egitasmoaren lehen helburu nagusia.

-Uztailan gurasoek lanean jarraitzen duten bitartean be-

raien haurrak oporretan daude eta, Udan Jolasean aktibitateak hutsune hau ere betetzen du, haurrentzat aisialdi zerbitzu profesionala eskainiz.

Beraz, funtzio bikoitza du udaleku ireki honek.

2004. urteko udan gehikuntza nabaria eman zen aurreko urteekin alderatuz: 180 haur apuntatu ziren. Udaleku ireki hau aisialdi enpresa batek kudeatzen du (enpresa hau konkurtsuan lehiatu ondoren aukeratu du Udalak). Udalekuaren antolaketa eta kudeatze honek suposatzen du: begiraleen selekzio eta kontrata-

zio prozesu osoa, egitarauaren prestaketa, aktibitate eta jolasen antolaketa, koordinazioa, zuzendaritza, ondorengo balorazio eta ebaluazioak, eta abar.

Begiraleei legezko kontratua egiten zaie eta legeak agintzen duenaren arabera ordaintzen zaie; zenbat eta haur gehiago orduan eta begirale gehiago kontratatu behar dira. Honek esan nahi duena zera da: zenbat eta haur gehiago orduan eta handiagoa dela kostua.

Gaur egun eska daitezkeen legezko baldintza eta, batez ere, kalitatezkoak bermatu

ahal izateko diru kopuru hauek ezin dira murriztu, bestela aktibitatea bera zalantzan jarriko genuke. Udalaren arretontua ez da mugagabea eta arrazoi hauengatik erabaki du udal honetako Gobernuan gauden talde politikoak (EAJ-EA), 2005eko Udan Jolasean egitasmoaren tarifa 30 euro igotzea.

Aktibitatea zifretan 2004an:
-Gurasoek ordaindutakoa = 5.400 euro (haur bakoitzeko 30 euro).

-Zerbitzu osoaren kostua = 22.369,1 euro (haur bakoitzeko 124,27 euro).

Dena den, Euskara Batzordeak egitasmo hau antolatzerakoan izan duen lehen helburua gogoan hartuta, hurrengo urterako beka edo hobari sistemaren bat aztertzeke konpromisoa hartu du, kuotaren zenbatekoak ez dezan eragotzi herritarrek Udan Jolasean egitarauan parte hartzea.

Hauexek dira gure azalpenak, norbaitek ekarpenik egin nahi badu egitasmoa hobetzeko gustu handiz hartuko ditugu.

XABIER ZABALA (VILLABONAKO EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEBURUA) ▶ VILLABONA

BERTSOLARITZA ▶

Bertsoak idazteak bere saria izaten du

Haritz Mujikak, Oihana Iguaranek eta Ilazki Ordozgoitik sariak lortu dituzte bertso paper lehiaketetan



Ilazki Ordozgoiti, bere bertsoak abesten Azkoitian. UROLA-KOSTAKO HITZA

IMANOL GARCIA

Eskualdeko hiru gaztetxo bertso paper lehiaketetan sariak lortu dituzte. Bederatzi urteko Haritz Mujika asteasuarrak —Pello Errota Bertso Eskolan dabil— bere mailan Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan txapela errepikatu du. Hamalau urteko Oihana Iguaran billabonatarrak —Villabona Bertso Eskolan ari da— aipamen berezia lortu du txapelketa berdinean bere mailan. Gaur jasoko dituzte sariak Donostiako Kursaal.

Bestalde, Ilazki Ordozgoiti zuzurkildarrak Azkoitiko Xabier Munibe Ikastolak antolatzen duen bertso paper lehiaketan hirugarren saria lortu zuen. Aurreko ostiralean herri horretako Baztartxo antzokian jaso zuen saria, baita abestu ere Tolosako Inauterietan buruz egingandako bertsoak.

ANOETA ▶ JAIK

Ekitaldi ugari izan ziren festetako azken txanpan

Mikel Oiarzabal eta Andoni Urkolaren omenez txirindulari proba egingo da etzi



Sagardo dastaketa izan zen igandeko ekitaldietako bat. HITZA

I. GARCIA

Anoetako jaien egitarau nagusia aurreko asteburuan izan bazen ere, datorren larunbatean ere izango da ekitaldirik, txirindulari proba, hain zuzen. Pasatu den igandean hainbat ekitaldi izan ziren bi egitarauetan, ofizialean eta alternatiboan. Pilota partidak, sagardo dastaketa eta Landarbaso abesbatzaren emanaldia izan ziren goizean. Arratsaldean eta gauean ere ekitaldi ugari izan ziren.

Esan bezala, etzi Mikel Oiarzabal eta Andoni Urkolaren omenez Gipuzkoako jubenetik txirindulari proba egingo da. Anoetan hasi eta herrian bertan amaituko den 97 kilometroko proba egingo dute ehun bat txirindularik. 22. edizioa da oraingo hau eta Oriako Txirindulari Eskolak antolatzen du. Eskualdetik, Belka taldeak hartuko du parte. Lehenengo hiru txirindulariek garaikurra jasoko dute eta taldekako eta mendiko sariak ere izango dira.

Loatzo Matrikulazioa
musika eskola 05-06 IKASTURTEA

Gaur bihar eta atzo, musikaren bidean LOATZO

Epea: maiatzak 30-ekainak 3
Non matrikulatu: (goizez, 10-12)

ANOETA: ikastolan IBARRA: kultur etxean
ADUNA: udaletxean LARRAUL: udaletxean
ALTZO: udaletxean VILLABONA: kultur etxean
ALEGIA: udaletxean IRURA: udaletxean
ZIZURKIL: Atxulondon

ESKAINZA ZABALA:
musika tailerra, tresnak, hizkuntza, tresnak, taldeak...

Informazio gehiago: 943 692619

KIROLA ▶

Agirrezabala eta Olea Gipuzkoako txapelkunorde

Legorretan jokotutako erlojuaren kontrako Gipuzkoako txapelketan, Joseba Agirrezabala anoetarra eta Hasier Olea tolosarra txapelkunorde izan ziren, elite eta jubenetan mailan, hurrenez hurren.

VILLABONA ▶

Batasunak batzarra egingo du gaur Gurean

Villabonako Batasunak batzarra egingo du gaur, 19:30ean, Gurea aretoan. Hauteskundeetako emaitzak eta balorazio politikoa eta aurrera begirako lan ildoak izango dira jorratuko diren gaiak.

AMEZKETA ▶

Festa Batzordeak bilera egingo du gaur arratsaldean

Gaur, 20:00etan hasita, herriko gazteek antolatuta Festa Batzordearen bilera egingo da balioanitzeko gelan. Hori dela-eta, zine klub saioa datorren osteguna arte atzertuko da.

ALEGIA ▶ KULTURA



Kolorezko beirak. Hamaika kolore uztartu dituzte ikasleek euren beirazko eskulanak egiterakoan Beirarekin batera, egurra eta metala margotzen ere ikasi dute. «Pinturaren esparru hauek jorrazteko proposamena egin nuen eta emaitzak oso onak izan dira», esan du Leire Markinezek. NOELIA LATABURU



Egunkariak biltzeko. Egunkariak gordetzeko ontzi originalak ere sortu dituzte ikastarokoek. N. LATABURU



Kamisetak. Kamisetak bezalako oihalak hainbat marrazki eta koloreekin atondu dituzte. N. LATABURU



Era guztietako eskulanak. Alegiako Kultur eta Kirol Etxeko erakusmahaietan denetariako eskulanak topa daitezke ekainaren 11 bitarte. Olioeko koadroak, egurrezko eta metalezko apaingarriak, hautsontziak, ohiolarekin eginiko mantelak,... Denetan ere ikasleek euren «gogo eta ilusio guztiak» jarri dituzte. N. LATABURU

Klasean landutako erakusleioa

Azken hilabeteetan Kultur Etxeko eskulan tallerreko ikasleen eskulanak jarri dituzte ikusgai, ekainaren 11 bitarte

NOELIA LATABURU

Alegiako eskulan ikastaroan eginiko lanak ikusgai jarri dituzte, atzo hasi eta ekainaren 11 bitarte, Inaxio Begiristain Kultur eta Kirol Etxean.

Leire Markinez tallerreko irakasleentzako batek azaldu duenez, «hiru hilabeteetan zehar, astero bi orduz aritu gara gogor lanean ikastaroan». Guztira hiru talde osatu ziren, 28

ikasleekin. Bertan orotariko arte lanak egiteko teknikak landu dituzte: pintura beiran, egurrezko dekorazioa, altzari txikiak margotzea, olio, metal dekorazioa eta oihala margotzea, esaterako.

«Ikastaroaren helburu nagusia eskulan hauek ezagutzera ematea izan da», aitortu du Arte Ederretan lizentziatua den Markinezek. Lehen egunean alor ezberdinak jorrazte

proposatu zuen irakasle gazteak, baina azkenean «norberak gustukoek zuen lana aukeratu zuen eta horretan eman dituzte hiru hilabeteak». Halaber, Markinez «oso pozik» azaldu da taldeen garapenarekin. «Herri txiki batean hiru talde sortzea oso garrantzitsua da eta haien jarrerarekin harrituta gaude erabat bi irakasleak». Tallerrean landutako emaitzak ikus-teko modukoak dira.



GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Kubako iraultza sozialistaz

Kubako iraultzak erreferentzia politiko izaten jarraitzen du mundu guztiko masa zapalduetan eta baita gaztedia eta langile klaseko militantziaren sektore handi batean ere. Bloke sobietiarren desagertuarekin, Kubak oso baldintza

kaxkarretan iraun du, hazten joan den presio ekonomikoari blokeoaren intentsifikazioa gehitu zaiolarik.

Indar inperialisten presio hau klase arteko borrokaren bilakaeran islatu da, Kubako gizartean eta Kubako Alderdi Komunistaren barruan. Kapitalismoa ezartzearen aldeko mugimenduak garatzen eta indartzen ari dira azken urte hauetan, irekiera ekonomikoa eta kanpotik heldutako kapitala-

rengatik, eta baita dagoen baliabide faltak eta iraultzako konkista sozialen galerak sortutako etsipenagatik.

Kapitalismoa ezartzea bul-tzatzen duen burges txikien sektorearen gorakada, Alderdi Komunistaren barneko buro-kraziaren zati batean ere nabaritu da, Sobietar Batasunean gertatu bezala, merkatu ekonomiarantz joateko transizioa egin nahi dutelarik.

Baina kapitalismoa ezartze-

ko dauden oztopoak ere boteretsuak dira. Fidel Castroren jarrera, une hauetan erreferentzia garrantzitsua da iraultza defendatuz jarraitzen duten indarrentzat, Alderdi Komunistako sektoreak, intelektualak eta langile klase kubatarra zailtasun handia dira kontrairaultza kapitalistarentzat eta iraultzarekin bukatu nahi duen AE-Ben inperialismoarentzat.

Horregatik Kubako gertakizunek garrantzi izugarria dute

klaseen arteko borrokan eta munduko langile guztiengan. Tolosaldeko Gaztetxeek, Kubako iraultzari buruzko hitzaldia antolatatu dute hango egoera gertuagotik ezagutzeko.

Gaur Ibarrrako Gaztetxean, arratsaldeko 19:00etan izango da eta Frank Josue Solar, Kubako Gaztedi Komunistakeko kidea arituko da. Gonbidatuta zaudete.

IBON ARTOLA ETA
MANU ODRIOZOLA ▶ ANOETA

IBARRA ▶ GIZARTEA

Kubako iraultza sozialista hizpide

Frank Josue Solar Kubako gaztedi komunistako kidea eskainiko du hitzaldia gaur 19:00etatik aurrera Gaztetxean



Frank Josue Solar, Kubako Alderdi Komunistako kidea. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur 19:00etan Ibarrrako Gaztetxean Tolosaldeko Gaztetxe-ek eta Gazte Asanbladek anto-

latuta Kubako iraultzari buruzko hitzaldia izango da entzungai. Bertako egoera gertuagotik ezagutzeko aukera izango da Frank Josue Solar, Kubako

Alderdi Komunistako kidea hizlari dela. Gaur Ibarrran bezala, bihar Burlatako Gaztetxean izango da kubatarra.

Kubako iraultzaren inguruko jardunaldi hauek egitearen arrazoia, «Kubako erreferentzia politiko izaten jarraitzen duela mundu guztiko masa zapalduetan eta baita gaztedia eta langile klaseko militantziaren sektore handi batean ere», azaldu dute antolatzaileek. Halaber, «indar inperialisten presioa klase arteko borrokaren bilakaeran islatu da, Kubako gizartean eta Kubako Alderdi Komunistaren barruan».

Antolatzaileek jende guztia animatu nahi dute gaur arratsaldean Ibarrrako Gaztetxean izango den hitzaldia entzuteratzen.

IBARRA ▶ KULTURA

XVII. Emeterio Arrese Literatur Lehiaketa abian

Olerkiak, hitz lauzko lanak eta taldekakoak ekainaren 15a baino lehen aurkeztuko dira

I. TERRADILLOS

Urtero bezala, Ibarrrako Udalen Euskara Zerbitzuak, Emeterio Arrese Literatur Lehiaketa jarri du abian. Aurtengoan XVII. edizioa beteko du gainera.

Lehiaketa honetan Ibarrran bizi diren edo ikasten duten 16 urte arteko haur eta gazte-txo guztiek parte hartu ahal izango dute. Deialdia hiru alo-rretarako egin da, hau da, olerkiak, hitz lauzko lanak eta talde lanak (DBHko ikasleek, prosan) aurkez daitezke. Bestalde, hiru maila edo kategor-ria berezituak dira: Lehen Hezkuntza bi maila izango dira, 6-8 urte bitartekoa bata eta 9-11 urte bitartekoa bestea, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza izango da hirugarren kategoria.

Talde lanei dagokionez,

erreportai edota ikerketa modura jorratu daitezke. Lanak gauzatu ahal izateko, agiri historikoak, elkarrizketak, argazki zaharrak eta abar erabili ahal izango dira. Gaia aukeratzeko orduan, arlo zein ikuspegi desberdinetatik lantzeko aukera izango da.

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duenak oinarriak udaletxean eta Kultur Etxean ditu eskura eta Euskara Zerbitzuan edota Kultura Etxean entregatu beharko dira. Lanak aurkezteko azken eguna ekainaren 15a izango da, eta jatorrizko lanak euskaraz aurkeztu beharko dira. Literatur lehiaketari buruzko informazio gehiago nahi duenak harremanetan jar daiteke Ibarrrako Euskara Zerbitzuarekin, udaletxera joanez edo 943 67 38 27 telefono zenbakira hots eginez.

hitza **txokoa** *lagunen*

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegietako kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAK ▶

Euskararen normalizaioan iaz hartutako konpromisoen jarraipena egiteko tenorea da

Areso eta Leitzako 56 eragile, enpresa ttiki, denda eta zerbitzuz Bai Euskarari Ziurtagiriak berritzeko aukera dute, Kontseiluak egunotan egingen duen lanarekin

JAIONE ASTIBIA

Oihana Lujanbio gaur-biharretan hasi eta hurrengo egunetan, Aresoko eta Leitzako hainbat eragilerekin ariko da lanean, Bai Euskarari Ziurtagiriaren berrikuspena eginez.

Izan ere, lehengo urteko uztailean 2an egin zen ekitaldian banatu zirenetik ia urte bete igaro da gure bi herrietako 58 eragile, elkarte, denda, enpresa eta zerbitzuz Bai Euskarari Ziurtagiriak eskuratu zituztela; eta urte bete horretarako, beti ere euskararen normalizazioaren bidean, konpromisoak hartu zituztela. Bada, orain, bere garaian jasotako ziurtagiri haien jarraipena egiteko da Kontseilua, eta, arestian aitatu bezala, Lujanbio bera izanen da horretan ariko den tekniko.

Honek, hiru eginkizun nagusi izanen omen ditu, hurrengo hilabete honetan, atzokoan Leitzaldeko Euskara Zerbitzu-



lazo uztailean Aresoko eta Leitzako 56 eragile egin ziren Bai Euskarari Ziurtagiriaren jabe, Xabier Mendiguren bertan zelaririk. J. ASTIBIA

tik bertatik HITZARI adierazi ziotenez, «Areso eta Leitzako eragile desberdinekin ariko da lanean», esanez. Iaz banatutako ziurtagiriaren jarraipena egingen dute, hasteko: «Guztiekin egon eta hartutako konpromisoak betetzen zer moduz ibili diren ikusiko dute elkarrekin», adie-

razi zuten, eta horren arabera, «konpromiso berriak hartu nahi diren erabakiko du bakoitzak», argituz.

Ziurtagiri berriak

Baina, Bai Euskarari Ziurtagiri berriak banatzea ere egitas-

moen barrenean dute, «iaz iritsi ez ginenengana joan eta euskararen normalizazioaren bidean, eurek ere urratsak ematera animatuko baititugu», zioten.

Horrela, egindako azterketa horren arabera, hartutako konpromisoen betetze-maila egiaztatuta edota berrien kasuan, hartutako konpromiso horien arabera, Kontseiluak «Ziurtagiri berriak edo berriak», banatuko ditu. Horren harira, gogora ekarri nahi izan zuten, hiru Bai Euskarari Ziurtagiri mota daudela, eragile bakoitzak, eta azterketa uanean, funtzionamenduan egiten duen euskararen erabilpenaren arabera direnak: *Bidean*, «normalizazioan lehen urratsak egiten eta konpromiso eraginkorrak hartu dituztenentzat», Areson 4 eta Leitzan 29; *Guk zerbitzua euskaraz*, «konpromisoak hartu eta dagoeneko euskarazko zerbitzua ematen dutenentzat», 2 eta 15;

eta *Guk zerbitzua eta lana euskaraz*, «dagoeneko euskarazko zerbitzua ematen eta euskaraz lan egiten dutenentzat», 1 eta 5. Guztira 56 ziurtagiri banatu zituzten iaz. Aurten, konpromiso horiek berritzea eta gehitzea ere ba omen dute helburu.

Horrela, bada, teknikoak banaka-banaka ziurtagiridun eragile, denda, elkarte, enpresa ttiki, zerbitzu guztiengana joanen omen da eta, noski, «euskararen normalizazioaren bidean urratsak emateko prest dagoen guztiarekin», laguntzeko prest egonez. Hori egitea ere egokitzen baitzaio Kontseiluari: «Urratsak nola eman eta bideratzeko aholkuak ematea ere ezinbestekoa izaten baita», ziotenez.

Bide batez, ziurtagiriaren jabe direnek, «beren ahaleginaren isla den agiria jendaurrera ateratzeko animatu», nahi izan zituzten, horretarako «bai dendetako erakuslehoietan jarri, inprimakietan erantsiz...». Oso garrantzitsutzat jo zuten hori, «herrietako eragileek euskararen alde egiten ari diren eginahalaran adierazle baita», esanez.

Eta dagoeneko egiten ari diren lan horren emaitzak ikusi, hurrengo hilaren hasieran ikusiko omen dira, halaxe jakinarazi zuten. Ziurtagiriaren banaketa ekitaldia egitekoak baitira. Zehazki, uztailean 1erako dute egina hitzordua, iluntze partean, 20:00etan, Leitzako udaletxeko batzar aretoan.

LEITZA ▶ XXVII. KULTUR ASTEA

Erakusketa desberdinak ere, ikusgai daude aste guztian zehar udaletxean

Esku lan mota desberdinak, koadroak, argazkiak eta olerkiak ikusteko aukera

J. ASTIBIA

Egunero egunero irekitzen dituzte: asteregunetan, arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara; igandetan, eguerdiz, 12:00etatik 14:00etara. Udaletxean daude ikusgai.

Lehenengo solairuan, esku lan mota desberdinak daude txukun-txukun jarrita. Lifo putzu eho-ziri lanzaleen elkarten-koenak alde batetik; bainikaz apaindutako manddareak, gantxiloz egindako puntillak, patch work teknikaz egindako koltxilak, gurutze puntuz egin-

dako koadroak... eta, noski, mota guztietako eho ziri lanak. Urte guztian egin dituzten esku lanak erakusgarritako jarrita daude. Eta urtetik urtera, lan zailagoak eta ikasi dituzten puntu berriekekin egindako lanak azaltzen dituzte.

Areto berean, eta tartean, dekorazioaren lagungarri gisa jarrita baleude bezala, pintura ikastaroan parte hartu dutenen hainbat koadro ere ikus daitezke, teknika desberdinez egindakoak: paisaiak, abstraktoak, irudiak, bodegak... Auke-rako margo-lanak. Ttikienek



Hara, ikusi daitekeenaren muestra. J. A.



Irudiak eta hitzak elkartuta ikusgai eta irakurgai daude. J. A.

egindako marrazkiak ere hantxe daude zintzilik.

Eta bigarren solairuan, berriaz, Mikel Illarregiren *Irudiak eta hitzak* erakusketa dago, hain zuen ere, irudiek eta hitzekin osatutakoa. Berak, bere joan-etorrietan atera izan dituen argazkiak jarri ditu ikusgai, arloka sailkatuta eta irudi mota eta teknika desberdinez

ateratakoak, erakutsiz, alde batetik. Eta han hemenka, irudi horiekien halako loturakoak, berak egindako olerkiak. Beraz, aukera polita herritarrek egindako lanak ikusteko.

Bestalde, Kultur Asteko antolatzaileek gogoratuarazi nahi izan dutenez, gaur omen da larumbateko gazte afarirako txarrelak hartzeko azken eguna:

Torraa eta Gaztan daude salgai, 7 euroren truke.

GAUR ▶

Gaia. Film laburrak: *Basurdea*, *Amnesia*, *Amuak*, *Ostertz* eta *Ilbera*.
Ordua. 20:00.
Tokia. Zinema.



Harpidedunei banatua ▶ 2005ko ekainaren 2a, osteguna ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(Zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketeta. Festa batzordea osatzeko bilera irekia gela balioanizdunetan 20:00etan.

Ibarra. Kubako iraultza sozialista hitzaldia. Gaztebelean 19:30ean.

Tolosa. Klimaren aldaketari buruzko erakusketa Kultur Etxean, Aste Berdean.

Tolosa. Zinezaleen bilera Kultur Etxean 20:00etan, Udaleri programazioa hobetzeko proposamenak jasotzeko.

Tolosa. Udal Haur Eskolan matrikula zabalik Euskara eta Hezkuntza Zerbitzuan (plaza Zaharra 6-B, 3. pisua, 3.2.atea) edo 943 65 44 66an. Gaur da azken eguna.

Tolosa. Ziklo politikoa berria aztertzeko batzarra egingo du Batasunak Kultur Etxean 20:00etan.

Tolosa-Villabona. Larunbatean Bilbora Batasunak antolatutako duen manifestaziora joateko autobusetarako izen-ematea ohiko lekuetan.

Villabona. Batasunaren bilera: hauteskundeetako emaitzak eta balorazio politikoa eta aurrera begirako lan ildoak. 19:30ean Gurean.

Villabona. Asvinenearen Txakur handia eta iletsua haur antzerkia Arroako gelan 17:00etan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Taillerretako ikasleen lanak. Kultur Etxea.

Tolosa. Manuel Arretxe. Pinturak. Sorron denda.

Tolosa. Aitor Ventureira. Inauteri argazkiak. Ganbara arropa denda (Gudari 16).

Tolosa. Argazkiak. Calcutako bizimodua.

Tolosa. Argazkiak. Aranburu jauregia.

Tolosa. Alejandro Gonzalez. Pinturak. Lanbroa taberna.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria 46. 943 67 32 74.

Leitza. Larraia M.I. Elbarren 95. 112.

IRRATIA

Txolarre (107 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko Ahotsak eguraldia, albisteak, irauli uhinak saioa.

19:00-21:00. Errepublikapena.

22:00. Gau bero saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Zazpi federaziotako partaidean izan ziren igerilekuan. J.SAIZAR



Tolosaldea IKTko hiru partaideek bere markak hobetu zituzten. HITZA

Giro ona urpean

TOLOSA ▶ Roberto Jauregiren omenezko hegats igeriketa probetan partaide asko izan zen; Sanchez mallorkarra eta Avila andaluziarra nabarmendu ziren

ERREDAKZIOA

Roberto Jauregiren omenezko hegats igeriketa probak izan ziren larunbatean Igarondo igerilekuan. Eskualdeko gazte asko ari da kirol hau praktikatzen Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldean—Igarondo Urpekoak elkartearena hor integratu da—eta bereaiek ziren maisu izan zenaren omenezko ekitaldiaren antolatzailerak.

Zazpi federaziotako jendea elkartu zen probetan: Balear Uharteak, Katalunia, Valentzia, Galizia, Andaluzia, Nafarroa eta Gipuzkoa. Gipuzkoarrak Ordizia, Zarautz eta Tolosakoak izan ziren.



Parte-hartzaile asko eta ikusle ugari elkartu zen Igarondon. JOXEMI SAIZAR

Goiz eta arratsaldean izan ziren probak eta Miguel Sanchez mallorkarra eta Irene Avila andaluziarra aipatu behar dira bereziki, lortu zituzten garaietan eta markengatik. IKTko

hiru parte-hartzaileek—Eneitz Etxeberria, Nere Karrera eta Mara Varela—oso ondo igeri eta bere markak hobetu zituztela esan behar da.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiote Udaleri eta Roberto Jauregiren familiari. Hauek opari bat eman zieten antolatzailerari.

Hegats igeriketako denboraldia ez da hor gelditzen. Igarondean bertan Donostian hiru hondartzetako proban parte hartu zuten bezperlan Tolosan izandako askok eta Tolosaldea IKTko partaideek eta Gregorio Manzisidor bosgarren gelditu zela esan behar da. Hemendik bi astetara berriz, Bidasoako jaitziera izango dute.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Aimar Vazquez Saizar (Usurbil-Berastegi).

Zorionak lehen urtebetetze egunean aitona-aita, aita-ama, osaba-izeba eta lehengusuen partez.



URTE ASKOAN

Unai Mendez (Anoeta). Gaur 3 urte. Gizonboia egiten ari zara. Naroa, aitabo eta amaboaeren partetik.

HITZA,
zorion agurren
tarteak

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5. behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!